



Porra galaktikoa

Olatz Querejeta Zabaleta

EUSKARA NARRAZIOA 17-18 URTE

1. Saria

1.KAPITULUA

- Joder, Ladydix, hanka sartu duzu. Berriro.
- Zergatik esaten duzu hori? Nazismoa sortu dut, bakarrik, kar, kar, kar (algara maltzurak)...
- Baina helburua Lur planetak iraun dezan baldin bada, horrela gaizki goaz.
- Nork esan du helburua hori denik? Nik pentsatzen nuen denbora pasa bat zela.
- Ba nik ez, nik serio hartu nuen porra galaktiko hau: ea humanoide inozo hauek irauten duten. Eta nik uste dut baietz, konfiantza dut beraiengan –erantzun dio Tsapikutxek.
- Ba nik uste dut ezetz, ergel hutsak dira eta. Horrela sortu ditugu: akats berdinak errepikatzeko. Gure profeta handiak zioen moduan: betiereko itzulera! Gerrak behin eta berriz, ziklikoki, heriotzak, ustelkeria, zapalkuntza. Behin eta berriz!! kar kar kar (algara maltzurak berriz ere). Gainera, gogoan izan zuk humanoide beltzak sortu zenituela eta begira zer egin zuten zuriek haiekin.
- Nola jakingo nukeen nik esklabuak bilakatuko zituztela azaleko kolore desberdina izateagatik?

2.KAPITULUA

Tsapikutx eta Ladydix eztabaidatzen ari dira Seneboj galaxian. Bien artean Lur planeta sortu dute eta apustuen bitartez aldaketak egiten ari dira humanoideen biziraupena frogatzeko. Seneboj galaxiako denbora Lurrarena baino askoz azkarrago pasatzen da; extralurtar hauentzako apustu simple bat dena humanoideentzat urte askotako gatazka soziopolitiko bilakatu daiteke.

Itxuraz, barearen antza dute, baina hartza baten altuera duena. Ilea izan ordez, tentakuluak dituzte eta azala ezkatatzen estalia dute. Zortzi begiz osatuta dago haien aurpegia, baina horietako bat buruaren atzekaldean kokatzen da, eboluzioaren ondorioz. Begiek aurpegiaren espazio guztia okupatzen dutenez, ez dute ahorik, eta komunikatzeko telepatia erabiltzen dute. Hiru bihotz dituzte, nahiz eta



askotan emoziorik ez sentitu. Gainera, haien algarak ekaitz elektrikoak sortzeko gai dira, bidean dagoen guztia suntsituz.

3.KAPITULUA

–Ostia! Zer izan da hori? –dio Ladydixek.

–Bonba bat! –Tsapikuxek.

L–Eztabaidan aritzeagatik ez gara ohartu humanoideak gerran murgildu direla berriro. Gainera ton-tolapiko hauek bonbak izendatu dituzte: "Little Boy" eta "Fat Man", kar, kar, kar!

T–Humanoide gizajoak... Zerbait egin beharko genuke...

L–Zer diozu? Hau behaketa bat besterik ez da.

T–Badakit, baina... Errudun sentitzen naiz. Humanoide asko hiltzorian daude gure apustu putengatik.

L–Tira, ez zaitetz errudun sentitu. Ez duzu ikusten arras motzak direla? Existitzen ez diren Jainkoei bizitza zor dietela uste dute, eta, are gehiago, beren izenean gehiegikeriak gertatzen dira. Humanoideen bizitzak ez du deustarako balio. Euren artean hiltzeko gai badira, jada bizitzaren balioa galdu dute.

T–Arrazoi duzu, begira zer egiten ari diren Palestina deituriko toki horrekin. Egunero hiltzen dituzte "sionista" izeneko humanoide batzuk bertan bizi direnak.

L–Ze ostia da "sionista"?

T–Joe, ba ez dakit baino badirudi boteretsuak direla ze lehenago ez ziren hor bizi eta orain bertako zonalde handi bat okupatua dute.

L–Ez dut ulertzen zergatik egiten dituzten horrelakoak. Jaitsi beharko du gutako batek gauzak gertuagotik ikertzera, ezta?

T–Bai, ni joanen naiz.

4.KAPITULUA

–Hemen nago berriro Ladydix13! Bi egun besterik ez dira izan baina luze egin zaizkit sortu dugun mundu nazkagarri honetan.

–Eta orduan, bizirauteko gai direla uste duzu?

–Keba Ladydix13, pasatzen den egun bakoitzeko ergelagoak dira.

–Kar,kar,kar... Banekien, humanoide inozo horien bizitzak ez du baliorik.

–Baina orain, sortu genituenean baino askoz ergelagoak dira. Ez dakite ezer egiten eta oso azkarrak direla uste dute. Mundua bera alde batera utzi dute; suntsitu egiten ari dira eta hura baino botere gehiago dutela uste dute.

–Ikusi ditut gure pantailatik nik ere; Ez dute naturan utzi genizkien baliabide ederrekin bizitzen ikasi. Plastiko izeneko zabor puta bat sortu eta edozein gauza jaten dute. Hori janda, ez dira gai ia ezta mugitzeko ere, eta mugitzeko zailtasunak dituzten zakur lodiak ere paseatzen dituzte. Kar,kar,kar...

–Kar,kar,kar... Horretan arrazoi duzu, Ladydix. Eta zer esanik ez "teknologia berriak" bezala izendatu duten kakaustel horri buruz. Mundu guztiak aparatu txiki bat du eskutan. Mobil edo horrelako zer-bait deitzen diote. Populazio guztia dago horri begira etengabe, txepelduta, beste ezer egin ezinik. Utzi egiten dutenean, telebista jartzen dute, bueno, eta biak batera ere erabiltzen dituzte. Horrek ere tontotu egiten ditu, idiotizatu.

–Eta zer ikasi duzu sortu duten ekonomia berri horretaz Tsapikux24?

–Lotsagarria da. Barre egiteko modukoa. Ez dakit nork edo zerk, behar zentzugabe batzuk sortu dituzte, gizartean itxura ona ematen dutenak: etxe handiak, kotxe handiak, bidai garestiak, arropa oso ridikuloa... Bueno ba hauek lortzeko, ekonomia hori sortu dute.

–Bai ikusi dut orain gauza handiak direla nagusi. Herrialde erraldoiak sortu dituztela ikusi dut gure pantailatik, zeinetan jendeak ez duen bere artean hitz egiten, aurrera oinez doazen arren, pausu be-rean, elkarri begiratu gabe... Eta nola lortzen dituzte gizartean itxura ematen duten gauza horiek ba?

–Lana deitzen duten eskubide bat sortu dute, kar, kar, kar... imaginatzeak soilik, barregura sorraraz-ten dit. Agian ez nauzu sinetsiko baina humanoideak, egunean zortzi ordu ematen dituzte lan deitu-riko horretan. Lan hori zortzi orduz gauzak produzitzen egotea da, besterik ez. Zortzi ordu ekoizten, pertsona baten agindupean eta oro har mugimendu berdinak egiten.

–Kar, kar, kar... Protestatu gabe?

–Ezer gutxi... Kar, kar, kar

–Eta zergatik egiten dute ba?

- Horretara nindoan. Humanoideek desiratzen dituzten gauzak ekoizten dituzte, denek ez dituzte berdinak desiratzen baina azken finean denek behar zentzugabeak ekoizten dituzte. Egin duten lan horrekin, paper zati batzuk eskuratzen dituzte.
- Paper zati batzuk? Ze ari zara adarra jotzen?
- Ezetz ba, egia dela kar, kar, kar. Bueno ba kontua da, gero paper horiekin beste humanoide ergelek sortutako tontakeriak erosten dituztela. Erositako gauza horiek apurtu edo modaz pasa egiten dira eta lan gehiagoren beharra dute erabiliko ez dituzten gauza gehiago erosteko.
- Ze ostia da modaz pasatzea?
- Guretzat ulertzeko zaila dela uste dut, ergelak dira, besterik gabe.
- Orduan, nik arrazoi ez? Apustua irabazi dudala uste dut.
- Bai hori ematen du, ez dut uste asko geratzen zaienik.